



**OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako
Saillburuordetza
*Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación
e Innovación Sanitaria
*Dirección de Gestión del Conocimiento y
Evaluación*

TOXIKOMANIEI BURUZKO **I**NFORMAZIO **S**ISTEMA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2008

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritza
Osasun eta Kontsumo Saila
Info2-san@ej-gv.es

2010eko abuztua

SARRERA

Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) Drogei buruzko Estatuko Planaren barruan jarri zen abian, 1987an. Informazio-sistema hori, hasiera batean, opiazeoen eta kokainaren kontsumoaren zeharkako adierazleetan oinarritzen zen, baina 1996. urtetik aurrera gainerako substantzia psikoaktiboetara zabaldu zen. 2003. urtean, halaber, beste aldaketa bat izan zuen eta Treatment Demand Indicator (TDI) izeneko Europako protokolo estandarrekin egin zuen bat.

Une honetan, SEITen adierazleak —beste adierazle batzuekin batera— Drogei buruzko Espainiako Behatokia (OED) sartuta daude, baita Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia (OEDT) ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, informazio-sistema horretan sartuta dauden adierazleen datuak bildu dira, definitzen joan diren heinean, eta arian-arian gertatutako aldaketak ere txertatu dira. Adierazle horiek Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren barruan sartuta daude.

Hona hemen erabilitako adierazleak eta sartu diren aldaketak:

TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Helburu hau du: urte jakin batean, toxikomaniak tratatzeko zentroetan (Osakidetzakoetan zein sarearekin itundutako edo itundu gabeko zentro pribatuetan) substantzia psikoaktibo gehiegi kontsumitzeagatik eta horien mendekotasuna gainditzeko tratamenduari ekiten dioten pertsonen kopurua zein den jakitea.

LARRIALDI-ADIERAZLEA. Helburua: 15-54 urte bitartekoek substantzia edo droga psikoaktiboak hartu dituztelako ospitaleko zenbat larrialdi-gertakari izan dituzten jakitea.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA. Helburua: gure erkidegoan 10-64 urte bitartekoek substantzia psikoaktiboak ez medikuak esanda eta nahita kontsumitzeagatik izandako kontrako erreakzio akutuaren ondorioz zenbat lagun hil diren jakitea.

MATERIALA ETA METODOAK.

Informazioa biltzeko SEITek ezarritako protokoloari jarraitzen zaio; 1996an eta 2003an aldatu zen protokolo hori. Datuak adierazleen arabera biltzen dira.

TRATAMENDU-ADIERAZLEan datu-bilketa modu pasiboan egiten da. Zentroek ambulatorioan tratamendua onartzeko jakinarazpen-orriak bidaltzen dituzte Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzura; hor, datuak egiaztatu eta akatsak zuzendu ondoren, prozesatu egiten dira, eta bikoiztuak ezabatu. Jakinarazpen-orri horietan honako datu hauek biltzen dira: alde batetik, datu soziodemografikoak (sexua, jaiotze-data eta probintzia, bizi den udalerria eta probintzia, nazionalitatea, heziketa-maila, lan-egoera, bizikidetzeta eta bizi izan den tokia); bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak (tratamenduan onartzea eragiten duen droga nagusia —alkohola barne—, kontsumoaren maiztasuna tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan, kontsumitzen hasitako urtea, aldez aurretik tratamenduren bat egin ote den, kontsumitzen diren bestelako drogak, hartzeko bidea eta egoera serologikoa GIBa dela eta)¹; eta azkenik, erreferentzia-iturria.

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak zentro eta instituzioek 2008. urtean egindako jakinarazpenetatik atera dira; 1. eranskinean bildu ditugu eta, guztira, 39 zentrotako datuak dira, Osakidetzakoak nahiz pribatuak. Alkoholaren eraginez tratamendua hasteari dagokion deskribapena bereizi egin dugu.

LARRIALDI-ADIERAZLEan, substantzia psikoaktiboak kontsumitu direla aipatzen duten larrialdi-gertakariak bilatzen dira. Bilaketa aktibo hori erregistro horretarako EAEn erreferentziatzat jo diren ospitaletan egiten da, hain zuzen ere, Bizkaiko lurralde historikoko Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleetan, eta 15-54 urte bitartekoen artean. OED behatokiarekiko koordinazioak, bestalde, gertakari horiek hilabete bakoitzeko zein astetan bilduko diren ezartzen du. Substantzia psikoaktibo

guztiak barne hartzen dira, tabakoa eta alkohola izan ezik, bestelako substantzia psikoaktiboen² kontsumoarekin erlazionatuta egon ezean.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA 1996. urteaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizial guztietan biltzen da, SEIT³ protokoloaren arabera. 2001. urtetik aurrera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) martxan jarri zenetik, heriotzen jakinarazpenak institutu horrek Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zuzendariordetzetako auzitegiko medikuen bitartez egiten dira, substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuak eragindako heriotzaren auzitegiko diagnostikoa egin ondoren.

Substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuek eragindako hilkortasun-tasa espezifikoak kalkulatu dira 10-64 urte arteko 100.000 biztanleko, bai eta adinaren arabera estandarizatutako tasak ere, zuzeneko estandarizatzeko bidez; horren erreferentziarako populazio gisa Europako populazio estandarra erabili da.

Tasak kalkulatzeko EUSTATEk 2009an zabaldutako 2020ko populazio proiektzioak erabili dira.

EMAITZAK

TRATAMENDU-ADI ERAZLEA

2008an 2.865 tratamendu-onarpen jakinarazi ziren (2007an baino 211 gehiago). Horietatik, % 13 Arabako zentroetan, % 23 Gipuzkoako zentroetan eta kopururik handiena Bizkaikoetan (onarpenen % 64). Tratamendu-onarpen guztietatik 2.791, EAEn bizi ziren. Gehienak (2.475, hau da, % 87,3) Espainian jaiotakoak ziren; ondoren Marokon (95), Kolonbian (41), eta Aljerian (36) jaiotakoak daude, baita beste jatorri-herrialde batzuetan jaiotakoak ere.

1. grafikoan, tratamendu-onarpenen banaketa ikus daiteke, tratamendua eragin duen drogaren arabera. Ikus daitekeenez, alkohola da gehienetan tratamenduan hastea eragin duena (1.061); bigarren postuan kokaina dago (904 onarpen) eta hirugarrenean heroina (467 onarpen).

1. taulan tratamenduan hastea onartu dituzten pertsonen ezaugarriak ikusten da, tratamendua eragin duen drogaren arabera banatuta. Ikusten denez ezaugarri soziodemografikoak eta kontsumo-ezaugarriak ez dira berdinak eta aldatu egiten dira drogaren arabera. Gizonen ehuneko handiena hipnolasaigarrien, cannabisaren eta kokainaren kasuan dagoela ikusten da. Gazteenak cannabis eta anfetaminak kontsumitzeagatik (batez besteko adina 25,6 eta 30,5, hurrenez hurren) onartzen dituzte tratamendurako, eta zaharrenak, aldiz, alkohola (batez besteko adina 45,3 urte) eta heroina (37,1 urte) kontsumitzeagatik. Ikasketa-mailari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, heroinaren kontsumoagatik tratamendua hasten dutenek dute mailarik baxuena. Goi mailako ikasketak dituztenak, berriz, alkohola kontsumitzeagatik onartzen dira, baita kokaina ere.

Lan-egoera kontuan izanik, aktibo dauden pertsonen —hau da, lan-harreman mugagabea edo aldi baterakoa izanik ere, lanean ardi direnen— ehuneko handienak kokainaren eta anfetaminaren kontsumoa dela eta hasten du tratamendua. Cannabis kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen % 20,1 ikasleak dira. Kasuen guztirakoari erreparatuta,

tratamenduan hasten direnen % 37,7 langabezian daudela nabarmendu behar da, eta % 7,7k ezintasun iraunkorra duela edo pentsiodunak direla.

Tratamendurako onartutako gehienak (% 86,6) etxeetan, etxebizitzetan edo apartamentuetan bizi dira. Bizikidetzaren beste aldagai bat. Eredua aldatu egiten da droga nagusiaren arabera. Hala, ikusten da alkohola kontsumitzen duten gehienak bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi direla, eta anfetaminak, kokaina edo cannabisa kontsumitzen duten gehienak, berriz, gurasoekin. Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola eta noren bidez iritsi den tratamendu-zentrora, ikusten da alkoholaren kasuan gehienak lehen mailako arreta-zerbitzuaren bidez iristen direla. Baina, heroina, anfetaminak eta kokainaren kasuan, gehienetan beren kabuz jotzen dute zentroetara. Cannabisaren kasuan, proportzio berdinean joaten dira bai lehen mailako arretatik bai senide eta lagunek bideratuta.

Aurretiaz tratamenduak eginda izatean eta ez izatean ere badira aldeak. Horiek horrela, ikus daiteke heroina, heroina + kokaina eta hipnolasaigarriak kontsumitzeagatik tratamendua hasten duten gehienek aurretik ere eginda dutela besteren bat. Gainerako substantzien kasuan, gehienek lehenengoz hasten dute tratamendua.

Horretaz gain, ikusten da 2008an heroina, cannabisa, hipnolasaigarriak eta alkohola kontsumitzen zuten paziente gehienek egunero kontsumitzen zutela. Dena den, anfetaminen edo kokainaren kasuan, antzeko proportzioan izaten da eguneroko kontsumoa edo asteburuetakoa. Kontsumo-eredu hori aurreko urteetakoaren antzekoa da.

Tratamenduan hastea onartu aurreko 30 egunetan droga nagusiaren kontsumo-maiztasunari buruzko datuak interpretatzeko garaian, ez dugu ahaztu behar tratamenduan hasi aurreko aldi hori atipikoa izan daitekeela, eta agian ez dela pazientearen ohiko kontsumo-maiztasunaren adierazgarri egokiena izango, balitekeelako pazientearen tratamenduan hasi behar duela jakinda kontsumo-ohiturak aldatzen hasita egotea, bere kabuz edo besteek aginduta.

Droga nagusia kontsumitzen daramaten urte kopuruari dagokionez, onarpena eragin duen drogaren arabera aldeak atzeman daitezke. Alkohola edo heroina kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen kasuan, kontsumo-historia luzea izaten dute. Gainerako drogetan, denetik ikus daitezke.

Hartzeko moduari dagokionez, adierazi behar da heroinaren kasuan gehienek birika-bidea erabiltzen dutela (% 44,8k). Kokainaren eta anfetaminen kasuan, gehienek sudur baretatik hartzen dute.

2. taulan, 1994tik 2008ra toxikomaniak direla-eta tratamenduan hasi direnen bilakaera ikusten da, tratamendua eragiten duen droga nagusiaren arabera —alkohola izan ezik—. Ez dugu ahaztu behar 1995 arte heroinak edo kokainak eragindako onarpenak baino ez zirela erregistratzen. 1996. urtean erregistratu zen onarpen kopuru handiena, eta ikus daitezkeenez, harrezkero, jaitsi egin da pixkanaka guztizko kopurua 2000. urtera arte; heroinak eragindako onarpenen jaitsieraren pare. Baina 2001etik aurrera, guztizko kopuruak berriz ere gora egiten du, batez ere, kokaina eta cannabisaren kontsumoagatik tratamendurako onartu direnen jakinarazpenek gora egin dutelako. 2005ean berriz ere behera egiten du kokainagatiko tratamendu-onarpenen kopuruak, eta behera egiten jarraitzen du 2006an eta 2007an ere, baina cannabis-kontsumoak eragindako onarpenak etengabe hazten ari dira 2001. urtetik. Azken urte honetan, dena den, hazten hasi dira heroina zein kokainagatiko onarpenak.

Azterketa hori egiteko, droga nagusi gisa jakinarazitakoa hartu da abiapuntutzat, baina aipatu behar da tratamenduan hasten den pertsona bakoitzak droga nagusiaz gain beste droga batzuk ere kontsumi ditzakeela; beste droga horiek honela jakinarazten dira: "tratamenduan onartu aurreko egunetan kontsumitutako bestelako drogak". 2008an, tratamendua hasi zutenen erdiek baino gehiagok (% 54,4k) gutxienez beste droga bat ere kontsumitzen zuen, % 23k, gutxienez, beste bi droga gehiago, eta % 8,1ek, gutxienez, beste hiru gehiago. (Datu horiek ez dira taulan agertzen).

2. grafikoan droga nagusiak direla eta tratamenduan hasitakoen bilakaera ikusten da —alkohola aparte utzi da—. Ikusten da EAEn 2003az geroztik

kokainak eragindako tratamendu hasierak heroinak eragindakoak baino gehiago direla, eta gehiago izaten jarraitu dute 2005 arte. 2006an eta 2007an behera egin zuten, eta berriz ere gora 2008an. Heroinak behera egin du etengabe 1996tik, baina 2008an gora egin du pixka bat. **3. eta 4. grafikoetan** Espainiako Estatuan 2007ra arte izan duen bilakaera ikusten da. Grafiko horietan, lehen EAerako esan dugunaren antzera, heroinak eragindako tratamendu-hasierek 2007ra arte behera egin dutela ikusten da; urte horretan, baina, lehendabiziko aldiz tratatutakoen kopuruak gora egin zuen, pixka bat. Kokainari dagokionez, nabarmentzekoa da lehendabiziko tratamendu gutxiago izan zela 2006-2007 urteetan.

3. taulan, zehatzago deskribatzen dira alkohol-kontsumoagatik tratamendua hasten duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoak.

Taula horretan ikus daitekeenez, batez besteko adina 45 urte ingurukoa izaten da gizonezkoen kasuan, eta 47 emakumezkoen kasuan. Alkohola kontsumitzen hasten diren adinari dagokionez, gazteago hasten dira gizonak (20 urterekin) emakumeak baino (ia 27 urterekin hasten baitira).

Bizkaiko zentroetan metatzen da alkoholaren eraginez tratamenduan hasten diren kopuru handiena, aurreko urteetan bezala.

Ez dago alderik ikasketa-mailari dagokionez gizonen eta emakumeen artean. Lanean ari diren gizonen ehunekoa handiagoa da (% 47,7) emakumeena baino. Nabarmentzekoa da, halaber, emakumeen % 19,2 etxeko lanetan soilik aritzen dela.

Jaiotza-herrialdeari dagokionez, gehienak Espainian jaiotakoak dira (% 86,2). Atzerrian jaiotakoei dagokienez, gizonen artean afrikarrak dira ehuneko handiena dutenak (% 6,4), eta emakumeetan, berriz, latinoamerikarrak (% 3,9).

Bizikidetzari dagokionez, antzeko eredua dute gizonek zein emakumeek, aurreko urteetan bezala seme-alabekin bakarrik bizi diren kasuan izan ezik; kasu horretan gehiago emakumeak gizonak baino.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola eta noren bidez iritsi den tratamendu-zentrora, alkoholaren kasuan lehen mailako arreta-zerbitzutik bideratuak dira gehienak, bai gizonak bai emakumeak.

Gizon zein emakume erdiek, gutxi gorabehera, ez dute aurretiko tratamendurik egin, eta egunero kontsumitzen dute alkohola.

Tratamendua hasi aurretik alkohola kontsumitzen daramaten denbora kontuan hartzen badugu, ikusten dugu gehienek 20 urte baino gehiago daramatela alkohola kontsumitzen (dena den, kontuan hartu behar da aldagai horri "ezezaguna" erantzun diotela % 20ek).

5. grafikoan, 1998. urtetik alkohola dela-eta tratamendua hasi dutenen bilakaera ikusten da, sexuaren arabera. Ikusten da 2002. urtean erregistratu zela tratamenduan onartutakoen kopuru handiena.

LARRIALDI-ADIERAZLEA

2008an substantzia psikoaktiboak erabiltzeagatik 356 larrialdi-gertaera erregistratu ziren ospitaleetan.

Gertaera horiek OED behatokiko koordinazioak adierazitako hiru ospitaleetan eta 12 asteetan erregistratu ziren.

Laginaren 12 asteetan erregistratutako larrialdiak direla kontuan hartuta, erreferentziako hiru ospitaleetan 2008. urtean, guztira, 1.547 larrialdi izan zirela kalkula daiteke.

4. taulan pazienteen ezaugarriak deskribatu dira. Gertaeren % 44 Basurtuko ospitalean erregistratu ziren. Kasuen % 64 gizonezkoak izan ziren, eta batez besteko adina 34 urte izan zen, bai gizonetan bai emakumeetan. Erregistratutako lau larrialdi-gertakarietatik hirutan, gutxi gorabehera, larrialdi-diagnostikoa drogen kontsumoarekin loturik egon da, zuzenean. Alta eman zitzaizen gehienei. Guztira 550 diagnostiko egin ziren; horrek esan nahi du larrialdi-gertakari bakoitzeko 1,5 diagnostiko, batez beste.

Oro har, 2008ko larrialdi-gertakarien ezaugarriak aurreko urtekoaren antzekoak dira.

ANALISIA, DROGAK BANAN-BANAN HARTUTA

5-8 tauletan, heroina, kokaina, cannabisa eta hipnotikoak eta lasaigarriak antzeman diren larrialdi-diagnostikoen banaketa ikusten da. Ez da alkohola deskribatzen, larrialdi-gertakarian alkohola bakarrik aipatzen bada, ez delako kasu gisa jasotzen.

Heroina kontsumitu dela aipatzen den larrialdi-gertakarien kasuan (**5. taula**), kasu gehienetan larrialdi-diagnostikotzat hartzen dira droga-kontsumoarekin lotura zuzena dutenak (F10etik F19ra).

Kokaina kontsumitu dela aipatzen den larrialdietan, gertakari horien diagnostikoak ere substantzia psikoaktiboen kontsumoarekin erlazonaturik daude, kasurik gehienetan; baina kontuan hartu behar dira, halaber,

gainerako buruko gaixotasunekin (eskizofrenia zein portaera-arazoak, esaterako) erlazionatutako diagnostikoak ere, zeinetan nabarmentzekoak diren antsietate-arazoak (% 6,1).

Hipnotiko eta lasaigarriak kontsumitu direla aipatzen den erregistratutako diagnostiko gehienak (**7. taula**), substantzia psikoaktiboen kontsumoarekin loturik daude, baita buru-arazoen taldearen barruko beste diagnostiko batzuekin ere, zeinetan depresio-arazoak eta antsietatea nabarmentzen diren, besteak beste. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea saio autolitikoak diagnostikoen % 9 inguru direla.

Cannabisaren kasuan (**8. taula**), larrialdi-gertakarietan izandako diagnostikoen % 44,8k soilik du zuzeneko erlazioa droga-kontsumoarekin. Garrantzitsuak dira halaber, beste buru-arazo batzuk eta gaizki definitutako seinale eta sintomak. Horien artean nabarmentzekoak: konbultsioak, sinkopeak eta kolapsoak.

Hipnolasaigarriak, alkohola eta kokaina dira larrialdi-gertakarietan gehien aipatzen diren substantziak. Horixe azaltzen da **9. taulan**.

10. taulan, diagnostikoa droga-kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta zegoen larrialdi-gertakarietan kontsumitu zirela aipatzen diren substantzien banaketa ageri da. Kasu horretan ere hipnolasaigarriak dira nagusi; ondoren, alkohola eta kokaina datoz, aurreko urteetan bezala.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA

2008an 46 lagun hil ziren substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzio akutuek eraginda, aurreko urtean baino hildako bat gehiago. Hildakoen % 70 Bizkaian hil zen, % 26 Gipuzkoan eta % 4 Araban. Hildakoetatik 44 EAEn bizi ziren.

11. taulan hildakoen informazio klinikoa eta datu soziodemografikoak deskribatzen dira. Hildakoen %72 gizonak ziren. Batez besteko adina: 39,9 urte gizonak, eta 43,6 emakumeek. Heriotza gehienak etxean (% 59) edo kalean (% 15) gertatu ziren, eta hiru kasutatik batean nork bere buruzak beste egin izanaren ebidentziak aurkitu ziren. GIBari aurre egiteko egoera serologikoari buruzko balio ezezagunen proportzioa oso handia da.

12. taulan, hildakoen analisi toxikologikoetan aurkitutako substantziak deskribatzen dira; sarrien aurkitu den substantzia kokaina izan da, eta ondoren benzodiazepinen taldea, alkohola eta heroina. Hildako bakoitzean, batez beste, 2,7 substantzia psikoaktibo aurkitu dira.

Azterketa-urte honetan, 2,82 izan da drogen kontrako erreakzio akutuek eragindako heriotza-tasa 100.000 biztanleko, bi sexuetan; Europako populazioarekin estandarizatutako tasa (EET), berriz, 2,50 100.000 biztanleko (KT % 95 1,75-3,24).

Gizonezkoen kasuan, EET delakoa 3,45 izan zen 100.000 biztanleko (KT % 95 2,22-4,67) eta emakumeen kasuan txikiagoa, 1,51 100.000 biztanleko (KT % 95 0,69-2,33).

6. grafikoan, azken 10 urteetan substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren bilakaera ikusten da. Horren arabera, 2003. urtera arte gizonezkoen zein emakumezkoen heriotza-tasan beheranzko joera antzematen da, baina 2004. urtetik aurrera igo egin da, eta 2005ean igoerari eutsi zitzaion. Gero, berriz ere, jaitsi egin zen eta horrela jarraitu 2008ra arte, baina gizonen kasuan soilik (emakumeen kasuan zertxobait gora egin du berriro ere azken bi urteetan).

13. taulan, 1997. urteaz geroztik substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzioek eragindako hilkortasunaren bilakaera deskribatu da zehatz-mehatz; **7. grafikoan** hildakoen batez besteko adinaren bilakaera ageri da, eta ikus daiteke adinak gora egin duela urteetan zehar: 1997an batez besteko adina 30 eta 31 urte zen gizonentzat eta emakumeentzat hurrenez hurren, eta 2008an, aldiz, 40 eta 44 urte, hurrenez hurren.

IRUZKINAK

Zeharkako hiru adierazle horiei buruzko datuen deskribapenak EAEn droga-kontsumoarekin loturiko arazoen ikuspegi orokor eta hurbila izaten laguntzen digu, arazo beraren alderdi ezberdinak erakusten baitzikigu.

Tratamendu-adierazleak erakusten digu 2008an EAEn eten egin dela jakinarazpenen kopuruan aurreko urteetan antzeman den beheranzko joera, ugaritu egin baitira kokainagatiko, heroinagatiko eta cannabisagatiko tratamendu gehiago hasi direlako.

Cannabisagatiko tratamendu-onarpen gehixeago izan direla antzeman da; toxikomania ez-alkoholikoengatiko tratamendu-hasieren % 13 dira. Ehuneko hori Espainia⁵ guztian 2007an onartutako tratamendu-hasiera guztien antzekoa da, tratamendu-hasiera guztien % 11,7 baitira. EAEn, cannabis kontsumitzeagatik tratamendua hasten duten lagunen % 20 baino gehiago ikasleak dira; horiek dira, halaber, tratamendua hasten dutenetatik gazteenak, European bezala⁶. Azpimarratzekoa da cannabis kontsumitzeak dituen ondorio negatiboak, hala nola eskola-porrota, desegituraketa pertsonala eta soziala, eta lan- eta osasun-arazoak. Badirudi, neurriak ezarri diren arren, ez dela lortu kontsumo horren arriskuaren eta eragiten dituen ondorio larrien pertzepzioa areagotzea⁷.

2006an alkoholagatiko tratamendu-hasierak zehatzago aztertzeari ekin zitzaion, errealitate hori bereizita aztertzeko modukoa baita EAEn. Gizartean beste droga batzuk baino onartuago dago, baina, era berean, lagun gehiagori ere eragiten dio kontsumo horrek Horretaz gain, droga bat baino gehiago kontsumitu edo politoxikomanoak izan eta tratamendua onartu dioten paziente askok kontsumitzen du alkohola.

Tratamendu-adierazleari dagokionez, 2007ra arteko datuak ditugu Espainian. Datu horien arabera egonkortasuna da nagusi 1996tik. Egonkortasun hori zenbait faktoreren ondorioen konbinazioaren emaitza da, batetik, heroina-kontsumoak behera egin izanarena eta iraupen luzeko tratamenduen eraginarena —opiazeoak ordezkatzeko tratamendua, adibidez; izan ere erabiltzaile gutxiago ibiltzen da asistentzia-zerbitzu

batetik bestera, eta horrenbestez, tratamenduan hastea onartutakoen kopurua gutxitzen laguntzen du— eta, bestetik, kokaina- eta cannabis-kontsumoek izan berri duten gorakadarena —horiek igotzen laguntzen dute⁴—.

Aipatzekoa da Europako datuak kontuan hartuta⁶ —2006koak dira dauden azkeneko datuak— heroina dela tratamenduan hastea eskatzen duten gehienek kontsumitzen duten droga nagusia (eskaeren % 47k); atzetik dator cannabisa (% 21ek) eta gero kokaina (% 16k). Heroina-kontsumoari erreparatuta, Europako datuen arabera, arazoa egonkortzen ari da, baina beheranzko joera eten egin dela aipatu behar da. Zenbait urtetan beherakada izan ondoren, droga nagusi gisa heroina-kontsumoa duten tratamendu-eskaera berriek gora egin dute 2005eko eta 2006ko datuak eman dituzten herrialdeen erdietan, gutxi gorabehera. Joera hori azaltzeko faktoreen artean, aipatzekoa da heroina-kontsumitzaile problematikoen kopuruak gora egin duela, tratamendu-eskaintza zabaldu egin dela eta informeen estaldura hobea egiten dela.

Espania da Erresuma Batuarekin batera kokaina-kontsumoaren prebalentzian buru den herrialdea.

Larrialdi-adierazlea ez da EAE osoaren adierazgarri, Bizkaiko Lurralde Historikoko ospitaleetako lagin bat hartzen duelako hilabete bakoitzeko aste jakin batean (ausaz aukeratzen da astea), baina tratamendu- eta hilkortasun-adierazleek ematen diguten informazioa osatzeko baliagarria da. Garrantzitsua litzateke, aldian behin, EAEko beste ospitale batzuetako larrialdietan drogek zer eragin duten aztertzea.

Drogak aipatzen diren larrialdi-gertakari gehienetan, hipnolasaigarriak, alkohola eta kokaina izaten dira. Hipnolasaigarriak dira diagnostikoa kontsumoarekin zuzenean erlazionaturik dagoen larrialdietan nagusi, aurreko urteetan bezalaxe, eta gehienak benzodiazepinen taldekoak dira. Datu hori azpimarratzeko modukoa da; izan ere, droga “ilegalekin” ez bezala, errezeta behar izaten baita hipnotikoak eskuratzeko. Substantzia psikoaktiboen kontsumoarekin loturiko larrialdietan, pertsona bakoitzak batez beste 1,4 droga hartu zituela adierazi zuen. Era berean, garrantzitsua

da adieraztea alkohola beste droga batzuekin batera agertzen denean soilik erregistratzen dela; horrenbestez, erregistro honetan ez dira kontuan hartu alkoholaren kontsumoa bakarrik aipatzen duten larrialdiak. Hala eta guztiz ere, sarrien aipatzen den droga da.

Aurreko urteetan, drogen kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren jaitsiera mailakatua ikus zitekeen EAeko hilkortasun-adierazlean. Tasarik txikiena 2004. urtean izan zen. 2005ean, Espainia osoan⁵ bezala, gora egin zuen tasa horrek, baina ez dakigu zergatik. Urte hartan, heroina izan zen hildakoetan maizenik aurkitutako droga. 2006tik aurrera, behera egin zuten berriz ere tasek, eta azkeneko hiru urteetan kokaina izan da, 2004an bezala, hildakoetan maizenik aurkitutako droga. Hau da, hildako kopuruak behera egiteaz gain, heriotza eragindako droga aldatu egin dela ikusten da.


BIBLIOGRAFIA

1. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Admisiones a Tratamiento por Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
2. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Urgencias Hospitalarias Directamente Relacionadas con el Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
3. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Mortalidad por Reacción Adversa Aguda a Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
4. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistemaren txostena. Euskal Autonomia Erkidegoa 2007. Lan-dokumentua. www.osanet.net
5. Drogei buruzko Espainiako Behatokia. 2007ko txostena (prentsan).
6. Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia. 2008. Informe anual sobre el problema de la drogodependencia en la Unión Europea y en Noruega. Luxemburgo: Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2008.
7. Plan Nacional de Drogas. CANNABIS. Informe de la comisión clínica de la Delegación del Gobierno para el Plan Nacional de Drogas. Madril, 2006.

ESKERRAK EMATEA


Eskerrik asko toxikomaniak tratatzeko zentroetako profesional guztiei eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko medikuei, datuak hain zehatz jaso eta bidaltzeagatik. Era berean, Basurtuko, Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaleetako Dokumentazio Zerbitzuei ere mila esker, kasu-bilketa erraztu digutelako.

1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.
Tratamendu-onarpenak, tratamendua eragin duen drogaren arabera.
EAE 2008



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.


2. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.
Heroina, kokaina eta cannabisaren tratamendurako onartutakoen bilakaera.
EAE 1992-2008



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila


3. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.

Espanian heroinaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera 1991-2007



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea.


4. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.
 Espainian kokainaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera
 1991-2007



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea.

5. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.


Alkoholagatik tratamendua jasotzea onartutakoen bilakaera, sexuaren arabera.
EAE 1998-2008



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

6. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.


Substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzio akutuak eragindako heriotza-tasaren bilakera, sexuaren arabera. EAE 1998-2008



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

7. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.

Substantzia psikoaktiboek kontrako erreakzio akutuen ondorioz hildakoen batez besteko adinaren bilakaera, sexuaren arabera. EAE 1996-2008



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

1. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Tratamendu egiteko onartu dituzten pertsonen ezaugarriak, onarpen hori eragin duen drogaren arabera. EAE 2008.

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Cannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
Kopurua guztira	467	143	904	12	235	1061	6	37	2865	
Batez besteko adina (urteak)	37,1	30,5	32,5	33,6	25,6	45,3	37,3	31,6	K	%
Sexua										
Gizonak	81,8	80,4	86,4	91,7	88	78,9	83,3	75,7	2.365	82,6
Emakumeak	18,2	19,6	13,6	8,3	12	21,1	16,7	24,3	499	17,4
Adin taldea										
15-19	1,3	8,4	3	0	28,2	0,5	0	8,1	119	4,2
20-24	3,6	14,7	12,7	33,3	25,6	2,1	0	21,6	247	8,6
25-29	11,8	25,9	23	8,3	18,8	5,3	0	16,2	407	14,2
